

757/2019 EBAZPENA, URRIAREN 30EKOA, OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUKO GIZA BALIABIDEEN ZUZENDARIARENA. HORREN BIDEZ ARGITAZEN DA ARGITARATU BEHAR DIRELA OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUAREN WEBGUNEAN 1., 2. ETA 3. LEHENTASUNETAKO 2018KO ALDI BATERAKO KONTRATAZIO-ZERRENDA EGUNERATUAK, MODALITATE HAUETAN: LANPOSTU HUTSEN ZERRENDA ETA ORDEZKAPENEN ZERRENDA, FAMILIAKO FEM - LMAT, PEDIATRIAKO FEM - LMAT ETA ERIZAINAK KATEGORIETARAKO.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko aldi baterako kontratazio-zerrendak 2011ko maiatzaren 9ko Erabakiaren arabera arautzen dira (EHAA, 106 zk., 2011ko ekainaren 6koa) – Osakidetza-Euskal osasun zerbitzua Ente Publikoaren Administrazio Kontseiluak emandako Erabakia –.

320/2019 Ebazpena, maiatzaren 7koa, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Giza Baliabideen zuzendariarena. Horren bidez argitaratu ziren Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuaren webgunean 1. eta 2. lehentasunetako 2014ko Lan Eskaintza Publikoko Eskaintzako aldi baterako kontratazio-zerrenda behin-behinekoak, 2011ko maiatzaren 9ko Erabakian araututako irizpideen arabera ordenatuak, modalitate hauetan: lanpostu hutsen zerrenda eta ordezkapenen zerrenda.

321/2019 Ebazpena, maiatzaren 7koa, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Giza Baliabideen zuzendariarena. Horren bidez argitaratu ziren 3. lehentasuneko aldi baterako kontratazio-zerrenda behin-behinekoak, modalitate hauetan: lanpostu hutsen zerrenda eta ordezkapenen zerrenda, A.1. lanbide-taldeko (Fakultatibo Medikoak) eta B.1. (Diplomadun Sanitarioak) lanbide-taldeko kategorietarako (Familiako FEM - LMAT eta Pediatriako FEM - LMAT kategorietarako izan ezik).

322/2019 Ebazpena, maiatzaren 29koa, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Giza Baliabideen zuzendariarena. Horren bidez argitaratu 3. lehentasuneko 2018ko aldi baterako kontratazio-zerrenda behin-behinekoak, modalitate hauetan: lanpostu hutsen zerrenda eta ordezkapenen zerrenda, Familiako FEM - LMAT eta Pediatriako FEM - LMAT kategorietarako.

Behin behineko zerrenda horien aurka ezarritako erreklamazioak aztertu ondoren,

EBAZTEN DUT

Lehena.- Agintzea Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuaren webgunean argitaratzea 1., 2. eta 3. lehentasunetako 2018ko aldi baterako kontratazio-zerrenda behin betikoak, modalitate hauetan: lanpostu hutsen zerrenda eta ordezkapenen zerrenda, Familiako FEM - LMAT, Pediatriako FEM - LMAT eta Erizainak kategorietarako.

Zerrenda horiek 2019ko urriaren 31n sartuko dira indarrean.

Bigarrena.- Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsioa aurkez dakioke Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiari. Horretarako, hilabeteko epea izango da, ebazpen hau webgunean argitaratu eta hurrengo egunetik hasita.

Vitoria-Gasteizen, 2019 urriaren 30ean



María Pilar Uriarte Brizuela
GIZA BALIABIDEETAKO ZUZENDARIA
DIRECTORA DE RECURSOS HUMANOS

Iz.: María Pilar Uriarte Brizuela

OSAKIDETZAKO GIZA BALIABIDEEN ZUZENDARIA